


E. KOMUNITATE-INGURUNEA



Helburu espezifikoak:

- Haurren obesitatearen prebentzioa udalen lan agendetan eta helburuetan sartzea.
- Gizartea kontzientziatzea haurtzaroan eta nerabezaroan elikadura osasuntsua eta jarduera fisikoa sustatzearen garrantziaren gainean.
- Osasunari buruzko ardura politika guztietan txertatzea, bereziki herrietako eta hirietako hirigintza-diseinuan, mugikortasun aktiboa eta jolaserako eta jarduera fisikoa eta kirola egiteko leku seguruak izatea ahalbidetuko duten lekuak sustatuta.

Proiektu estrategikoak:

E.1. Udalekin lankidetzan jardutea haurren obesitatearen prebentzioa udaletako agendetan sar dezaten, mekanismo ezberdinak baliatuz:

Osasunaren edo kirolaren arloko teknikariak izendatzea, haurren obesitatearen prebentzioaren esparruan udalean edo partzuergoan erreferente izan daitezen.

Udalan edo eskualdean lantaldeak eratzea jarduera fisikoa egiteko eremuak egokitzeko aukerak identifikatzeko. Lantalde horietan udal-arduradunek, urbanistek, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko adituek, hezitzaileek eta abarrek parte hartuko dute.

E.2. Elikadurari eta jarduera fisikoari lotutako portaera osasungarrien irudi positiboa sozializatzeko agenda iraunkorra diseinatzea, bizipenak sartuta. Mugimendu horrek, besteak beste, honako ekintzak barne hartu ahal izango lituzke:

Abian dauden ekimenak, argitalpenak, nutrizioari buruzko gomendioak, eta abar jasoko dituen web-orri bat sortzea.

Hedabideekin eta gizarte-sareekin lankidetzan ikus-entzuleetara egokitutako mezuak eta komunikazio-estrategiak lantzea.

Eztabaidarako eta datuen analisirako foroak, unibertsitateetan udako ikastaroak... egitea.

Bereziki neskatoen jarduera fisikoa sustatzera bideratutako mezuak zabaltzea, kirolaren kontzeptu tradizionala jarduera fisikora zabaldu behar dela azpimarratuta.

E.3. Neska-mutilen mugikortasuna ahalbidetuko duten hirigintza-proiektuak eta eremuak sustatzea: jolaserako ingurune seguruak, eskola-bideak, bidegorriak, eskola-orduetatik kanpo eskoletako kirol-instalazioak erabili ahal izatea, behar bereziak dituzten neska-mutilentzat eremuak izatea, etab.

Zerikusia duten beste proiektu batzuk:

EUSKADIKO ELIKADURA OSASUNGARRIRAKO EKIMENAK

12. PROIEKTUA. Joera sortzen: elikadura osasungarriaren bultzada mediatikoa, batez ere gazteei zuzenduta, ohitura osasungarriari balioa emateko.

13. PROIEKTUA. Udalekin lankidetzan, sasoiko fruta eta barazkien egutegi multikanala garatzea.

MUGIMENT PROIEKTUA

Jarduera fisikoaren orientazio zerbitzuak. Tokiko eragileek pertsona ez-aktiboak identifikatzen dituzte eta orientazio-zerbitzura bideratzen dituzte. Zerbitzu horretan inguruan erabilgarri dauden baliabideak ezagutzen dituzten pertsonak jarduerarik egokienak proposatzen dizkiote pertsona bakoitzari, bere premien, muga eta interesen arabera, eta, gainera, praktikan jartzen laguntzen diote.